

Prozesuaren garrantzia

Alfa enpresak ondarea babesteko teknika berritzaileak bereganatu ditu. Eskulturak egunero ikus daitezkeen ikonoak dira; museoak ez ezik, hirietako gune esanguratsuenak ere betetzen dituzte. Haien egilea ezagutzen dugu batzuetan, edota obraren esanahia bestetan. Baina nola iritsi dira haraino? Zeinek fabrikatu ditu? Eskultura baten ibilbidea erakusten du Alfa Artek, Donostiako Okendo kultur etxean antolatu duen Industria artearen zerbitzura erakusketan.

Erakusketa ez da sortutako obren esposizio soilak. Eibarko Alfa enpresako gerente Jose Mari Armentiarren esanetan, erakusketak ez ditu urteetan egindako piezak nahasten besterik gabe; helburu nagusia tailerreko lana erakustea da, emaitzak nondik atera diren azaltzea.

Obra sortzeko prozesuaren atal guztiak erakusteko, aretoa hiru zatitan banatu dute: lehenik, argizari galduko galdaketa izeneko prozesua azaltzen da, eskultura bat eratzeko erabiltzen diren material ugarien laginekin batera. Bigarren atalean, prozesuaren emaitza diren zenbait pieza ikus daitezke, Alfa enpresaren lana erakusten duten bideoekin batera. Azkenik, enpresaren proiektu berritzaileena aurkezten da; ondare kulturalaren zati diren monumentuen kontserbazio eta errestituziorako egindako lanak. Horren adibide esanguratsuenak Ekainberri da, Ekain kobaren erreplika.

Alfa enpresa eibartarrak eskultoreen proiektuen eta azken emaitzaren arteko prozesua lantzen du. 1993. urtean hasi ziren merkaturako brontzezko piezak eraikitzen. 2000. urtetik aurrera eskultura publikoaren merkatura egin zuten salto, Jorge Oteiza, Juan Luis Baroja, Andres Nagel, Dora Salazar, Jose Zugasti eta Miquel Barcelo eskultoreen lanak burutuz.

Ondoren, laser bidezko 3D digitalizazio sistema ezarri zuten; sistema horrek piezen tamaina aldatzeko zein ondare kulturalako monumentuen kontserbazio eta errestituzioari laguntzeko balio du.

Armentiarren arabera, beren lana artistaren gogoarekin lotzen dute beti: Artistaren arabera, bere esku-hartzeak garrantzi handiagoa edo txikiagoa har dezake obraren eraketan. Askotan, egilea bera gure langileekin batera aritzen da, batez ere pieza amaitzear dagoenean. Elkarrekintza horrek asko erakusten digu bai guri baita artistari ere.

Zenbait obrak zailtasunak izan ohi dituzte, tamaina handi edota material astunekoak direnean batik bat. Garraiatzekoa momentu zaila izaten da batzutan. Egilearekin ados jarri behar gara obra zatitzeko puntuan eta berreraikitzeko orduan. Orain, laserrari esker, obraren zati guztiak kontserbatzeko aukera dugu.

Materialen aukeraketa ere eskultorearen esku uzten da: Arazo praktikorik egon ezean, baliabide guztiak egilearen zerbitzura uzten ditugu.

Erakusketa propioa

Artista ugari jo dute Eibarko enpresak eskaintzen duen zerbitzuaren bila. Urteetan sortu dituzten obrekin, Alfa Arte izeneko erakusketa antolatu zuten 2004an, bertatik igaro diren estilo eta diseinu ezberdinetako obrak jasotzen dituenak, enpresaren erakustaretoan bertan. Hemendik igarotzen diren artista guztiak dira garrantzitsuak guretzat, eta proiektuak maitasunez hartzen ditugu.

Orain, Miquel Barceloren eskultura bat sortzen ari dira; zortzi metroko luzera edukiko du: Proiektu konplexua eta polita izan da. Gure asmoa gero eta erronka gogorragoak planteatzea izan da beti. Horregatik, orain metalarekin lanean ibiltzeaz gain, poliesterreko zuntza lantzen hasi gara, Ekainberri proiektuan kasu, eta beste enpresekin ari gara elkarlanean.

Erakusketa irailaren 2ra arte egongo da ikusgai, astelehenetik larunbatera. Alfa enpresak ondarea babesteko teknika berritzaileak bereganatu ditu

Donostiako Okendo kultur etxeko erakusketaren azken atalak Alfa enpresaren azken berrikuntza erakusten du: ondarea babesteko balio duen laser bidezko 3D digitalizazio sistema. Laser izpiak monumentu zaharkituak eskaneatu eta erreproduzi ditzake, 20 mikrako errorearekin. Berrikuntza honek ondare kulturalaren zati diren obrak zaharberritzeko balio du. Alfa enpresako gerente Jose Mari Armentiarren esanetan, sistema honekin, kalean aurkitzen diren monumentu esanguratsuak kontserbatzeko ahalmena daukagu.

Bestalde, enpresa museoekin ari da elkarlanean, material hauskorreko edo delikatuak diren piezen erreproduzioak eginez, hala nola buruhezurrak, erremintak eta antzinako bestelako elementuak. Proiekturik ezagunena Ekainberri erreplika da.